

Hondarribiko Mugikortasun Jasangarriaren Mahaiaren bilera

Jarduera: Mugikortasunaren planaren baitan 2020ean zehar abiatutako jarduera eta egitasmoen egoeraren berri ematea eta Mahaiaren jarduera berrabiarazi.

Data eta lekua: 2020ko uztailaren 20ean, 18:30etan, Hondarribiko Udaleko Osoko Bilkuren Aretoan.

Deialdia: Hondarribiko Udalak.

Partaideak

18 pertsona heldu (7 emakumezko eta 11 gizonezko)

	Izena	Erakundea
1	Maialen Ausín	Udaleko Ingurumen Teknikaria
2	Belén Martínez	ACUBI elkarte
3	José Luis Salvatierra	Sorbeltz elkarte
4	Maiara Urrutia	Autocares Diez
5	Gorka Obeso	Talaia institutua
6	Angel Alkain	Amuitz, bizilaguna
7	Lupe Urtizberea	Landa eremuko bizilaguna
8	Eli Sorondo	Ama Guadalupekoa eskola zuzendaria
9	Iñaki Astudillo	Amute Kosta bizilagun elkarte
10	Igor Enparan	Abotsanitzeko zinegotzia
11	Leire Míguez	Emeki elkarte
12	Carlos Fernández	Ostalaritza eta autonomoak
13	Juan Luis Silanes	Ingurumeneko zinegotzi ordezkaria
14	Aitzol Goikoetxea	Talaia LHI
15	Manu Eizagirre	Balazta elkarte
16	Estibalitz Hernández	Talaia gusaso elkarte
17	Xabier Isasi	EH Bilduko zinegotzia
18	Ander Irazusta	Mahaiko bideratzailea

Gai zerrenda

1. Partaideei ongi etorria
2. Mugikortasun plana garatzeko abiatutako proiektuen egoera
3. Bestelako gaiak

1. Partaideei ongi etorria

Ingurumen zinegotziak ongietorria egin die bertaratutakoei, osasun-krisiak eragindako etenaldi luze baten ondoren eta egoera zailak uzten duen une batean, berriz ere Mugikortasun Mahaia biltzearen garrantzia azpimarratuz. Saioaren helburu nagusia mugikortasun plana garatzeko abiatutako proiektuen egoeraren berri ematea da, ekarpenak jasotzea eta zalantzak argitzea, sor daitezkeen beste gaiez harago.

2. Mugikortasun plana garatzeko abiatutako proiektuen egoera

Azaltzen diren egitasmo eta proiektuak honakoak dira:

- Hondarribia 30 Hiria
- Mugikortasun ordenantza
- Bitoriano Juaristi kaleko proiektua
- Talaia Alai proiektu eta estrategia
- Portuko oinezko eta bizikletentzako hobekuntza-proiektua

Proiektuen inguruko xehetasun batzuk argitu ondoren, Portuko proiektuaren inguruko zalantzak adierazi dituzte hainbat parte-hartzailek, zehazki, izango den autoen aparkalekuen ezabatzearen inguruan, anbulatoria autoz iristeko aukeraren inguruko kezka azalduz. Erantzuten da Mugikortasun Planean aparkalekuen diagnostikoa (lekuen zenbaki eta banaketarekin) eta aparkaleku-politika orokor baten proposamena egiten dela, eta politika honen irizpide nagusien artean erabiltzaile ez-motordunentzako espazioa berreskuratzea dagoela, aldi berean beharrezko zerbitzuetarako eta bertakoen zereginetarako auto bidezko irisgarritasuna bermatuz.

Jarraian mugikortasun ordenantzaren gauzatze prozesuari buruzko eztabaida ematen da. Alde batetik esaten da azken hilabeteetan faltan bota dela ordenantzaren inguruko eztabaida soziala. Ordenantzaren egoera zein den galdetu da eta zirriborroa eskatu ez ezik, lanketan parte hartzeko aukera izatea eskatu dute. Udal teknikariak erantzun du ordenantzaren laster ordenantza itzulita jasoko dutela eta edozein herritarren parte-hartzea aurreikusten duen prozedura ofizialaz harago (behin-behineko eta behin betiko esposizio eta interesatuen alegaziotarako aukera eta epe ezberdinekin), parte-hartze prozesu zabalagoa eta aberatsagoa bermatu behar dela, hartara bi ekintza proposatzen direlarik udalaren aldetik. Alde batetik, zirriborroaren euskarazko bertsioa eduki bezain laster, Mugikortasun Mahaiko partaideei bidaltzea, hurrengo asteetan aztertu eta ekarpenak egin ahal izateko. Bigarrenik, irailean, mugikortasun ordenantzaren inguruko saio monografiko ireki bat egitea. Bileraren bukaeran bi ekintza hauek egingo direla berretsi eta adosten da denen artean.

Udaletik aipatu da krisiarengatik etendako edo hasi gabeko hainbat prozesu parte-hartzaileen ber-aktibazioaren garrantzia (Talaia Alai estrategia eta mugikortasun ordenantzaren adibideak aipatuz).

3. Bestelako gaiak

Tarte zabala hartu duen beste gai bat Amute, Mendelu eta Irun arteko bizikleta bidez eta oinez era seguruan lotzeko dagoen beharrarena izan da. Lotura honen gaur egungo segurtasun eza eta egikaritzeko dagoen eskaera handia frogatzeko Balazta elkarteak egindako zenbaketak (2.700 txirrindulari egun batean) eta inkestak aipatu dira. Gai

honen inguruan soluzio bat lortzeko ahaleginak areagotzeko eskatu dio elkarteak Udalari, kontuan hartuta inplikaturik dauden instituzio guztien arteko adostasuna bultzatu behar dela. Ingurumen zinegotziak erantzun du dagoeneko kontaktu eta bilerekin hasi direla eta emaitzak lortzeko ahaleginekin jarraituko dutela.

Bestalde, bizikletentzako aparkalekuei buruz hitz egin da. Balaztak eskertu ditu hondartza ingurunean udalak ipinitako bizikletentzako aparkalekuak (300 leku inguru), baina aukeratutako modeloarekin ez dago ados. Horregatik, horrelako erabakiak hartu baino lehen bizikleta erabiltzaileei kontsultatzea eskatu da. Eskaera hau bizikleta bideen proiektuen egileei ere luzatzea eskatzen du. Bizikleta-bideen egoeraren harira, beste parte-hartzaile batek aipatu du ospitalera doan foru bizikleta-bideak segurtasun arazoak dituela baserri eta auzoetarako sarbideen bidegurutzetan, diseinuak berak edo hazitako sastrakek auto-gidari eta txirrindularien arteko ikusgaitasuna kaltetzen omen baitu.

Bukaeran minibusaren egitasmoari buruz galdetu da. Ingurumen zinegotziak erantzun du oraindik hainbat traba gainditu behar direla. Adibide modura aipatu du egungo araudiak ezartzen duen baldintzetako bat: hogeita mila biztanletik beherako udalerriek (Hondarribiko kasua dena) ez dute garraio publikoaren zerbitzua eskaintzeko obligazioa. Eskaini ahal izateko udalekotu egin behar dute.

Irailean mahaiaren beste saio batera deitzeko akordioarekin ixten da saioa.



Reunión de la mesa de la movilidad sostenible de Hondarribia

Actividad: Dar cuenta del estado de los proyectos y acciones emprendidas en 2020 para el desarrollo del Plan de Movilidad y relanzar la actividad de la Mesa.

Fecha y lugar: 20 de julio de 2020 a las 18:30h. Salón de Plenos del Ayuntamiento de Hondarribia

Convoca: Ayuntamiento de Hondarribia

Participantes

Asisten 18 personas adultas (7 mujeres y 11 hombres).

	Izena	Erakundea
1	Maialen Ausin	Técnico de Medio Ambiente municipal
2	Belén Martínez	Asociación ACUBI
3	José Luis Salvatierra	Asociación Sorbeltz
4	Maiaia Urrutia	Autocares Diez
5	Gorka Obeso	Instituto Talaia
6	Angel Alkain	Amuitz, vecino
7	Lupe Urtizberea	Vecina ámbito rural
8	Eli Sorondo	Directora colegio Ama Guadalupekoa
9	Iñaki Astudillo	AA.VV. Amute Kosta
10	Igor Enparan	Concejal de Abotsanitz
11	Leire Míguez	Asociación Emeki
12	Carlos Fernández	Hostelería y autónomos
13	Juan Luis Silanes	Concejal delegado Medio Ambiente
14	Aitzol Goikoetxea	CEIP Talaia
15	Manu Eizagirre	Asociación Balazta
16	Estibalitz Hernández	AMPA Talaia
17	Xabier Isasi	Concejal EH Bildu
18	Ander Irazusta	Facilitador de la Mesa

Puntos tratados

1. Bienvenida a las personas asistentes
2. Estado de los proyectos de desarrollo del Plan de Movilidad en marcha
3. Otros temas

1. Bienvenida a las personas asistentes

El concejal de movilidad da la bienvenida a las personas asistentes, tras la larga parada debida a la crisis sanitaria y en un momento que la situación lo permite, destacando la importancia de volver a reunirse en torno a la Mesa de Movilidad. El principal objetivo de la sesión es informar sobre el estado de los proyectos de desarrollo del plan de movilidad puestos en marcha, recibir aportaciones y aclarar dudas, además de otros temas que puedan surgir.

2. Estado de los proyectos de desarrollo del Plan de Movilidad en marcha

Se exponen las siguientes acciones y proyectos:

- Hondarribia Ciudad 30
- Ordenanza de movilidad
- Proyecto de la calle Bitoriano Juaristi
- Proyecto y estrategia Talaia Alai
- Proyecto de mejora peatonal y ciclista de Portua

Tras la aclaración de detalles de los proyectos algunos participantes expresan dudas en relación al proyecto de Portua, concretamente, en torno a la supresión plazas de aparcamiento de coches, mostrando preocupación sobre la accesibilidad en coche al ambulatorio. Se responde que en el Plan de Movilidad incluye un diagnóstico sobre el aparcamiento (con la cantidad y distribución de plazas) y una propuesta de política general de aparcamientos, siendo uno de sus principales criterios la recuperación de espacio en favor de los usuarios no motorizados, al tiempo que se garantice la accesibilidad en coche para los servicios y tareas necesarias de los residentes.

A continuación, se produce un debate sobre el proceso de realización de la ordenanza de movilidad. Por una parte, se comenta que en los últimos meses se ha echado de menos el debate social en torno a la ordenanza. Se pregunta sobre el estado de la ordenanza y, además de solicitar el borrador, se pide poder participar en su elaboración. La técnico municipal responde que en breve recibirán la ordenanza traducida, y que más allá del procedimiento oficial (con la exposición provisional y definitiva y los diferentes plazos para las alegaciones de los interesados), debe garantizarse una participación más amplia y rica, para lo cual desde el ayuntamiento se proponen dos acciones. En primer lugar, una vez se cuente con la versión en euskera del borrador, su envío a los miembros de la Mesa de Movilidad, para que en las próximas semanas puedan estudiarlo y hacer aportaciones. En segundo lugar, en septiembre, se propone realizar una sesión monográfica abierta. Al final de la reunión se confirma y acuerda entre todos que se realizarán estas dos acciones.

Desde el ayuntamiento se subraya la importancia de la re-activación de los diversos procesos participativos interrumpidos por la crisis o pendientes de comenzar (citando los ejemplos de la estrategia Talaia Alai y de la ordenanza de movilidad).

3. Otros temas

Otro tema sobre el que se debate ampliamente es la necesidad de la conexión peatonal y ciclista segura entre Amute, Mendelu e Irun. Para demostrar la falta de seguridad y la alta demanda actual de realización de dicha conexión se citan los conteos (2.700 ciclistas en un día) y encuestas realizadas por Balazta. La asociación pide que el

ayuntamiento redoble los esfuerzos para solucionar este asunto, considerando que debe impulsarse el acuerdo entre todas las instituciones implicadas. El concejal de medio ambiente responde que ya han empezado con contactos y reuniones y que continuarán con el empeño de lograr resultados.

Por otro lado, se ha hablado sobre los aparcamientos para bicicletas. Balazta agradece los aparcamientos que el ayuntamiento ha instalado en la zona de la playa (alrededor de 300 plazas), pero no está de acuerdo con el modelo elegido. Por ello se pide que, antes de tomar este tipo de decisiones, se consulte a los usuarios de la bicicleta. Solicita que se extienda dicha petición a los redactores de los proyectos de vías ciclistas. Al hilo del estado del estado de las vías ciclistas otra participante expresa que la vía ciclista foral que conecta con el hospital tiene problemas de seguridad en las intersecciones de los accesos a caseríos y barrios, ya que el propio diseño o los arbustos crecidos impiden la visión entre conductores y ciclistas.

Al final se pregunta por el proyecto de minibús. El concejal de medio ambiente responde que aún hay que superar varios obstáculos. A modo de ejemplo cita una de las condiciones que establece la legislación actual: los municipios de población inferior a veinte mil habitantes (caso de Hondarribia) no tienen la obligación de ofrecer el servicio de transporte público. Para poder ofrecerlo tienen que municipalizarlo.

Se cierra la sesión con el acuerdo de convocar otra sesión de la Mesa en septiembre.

